



**EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 17koa, Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez hainbat ikastetxetan hutsik dauden behin-behineko lanpostuak zehazten dira; lanpostuok Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan daude, eta kidego hauetakoak dira: Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak.**

Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2022ko urriaren 14a),

Horren ondorioz,

### **XEDATU DUT:**

**Lehen artikulua.**- Argitara ematea Ebazpen honen eranskinean zein behin-behineko lanpostu bete behar diren Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoko funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko.

**Bigarren artikulua.**- Interesatuek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko lanpostu hutsen zerrenda horren kontra, 5 laneguneko epean, Hezkuntza sailaren web orrian argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 17a